



#### **4. AKTA**

**TOKIKO GOBERNU BATZARRA**, 2008ko apirilaren 28an izandakoa.

TOKIA: Pasaiako hirian eta bertako udaletxean.

DATA: Bi mila eta zortziko apirilaren hogeita zortzian

BERTARATU DIRA:

Ander Poza Olabide j.  
Iñaki Garmendia Agirregabiria j. eta  
Obdu Lorenzo de Dios a.

Burua:

Maider Ziganda Población, alkatea.

Lehenengo deialdian, Mainer Ziganda Población alkate andrea buru dutela eta Joseba Belaustegi Cuesta udal idazkaria bertan dela, goian aipatutako zinegotziak bildu dira, Tokiko Gobernu Batzarraren bilkura egiteko. Ez du bere ezin etorria justifikatu Edurne Baztarrika Bilbao andreak eta Alvaro Ricón Rivera jaunak.

Tokiko Gobernu Batzarra legez osatzeko behar hainbat partaide etorri dela egiaztatu ondoren, lehendakariak, 9:05ean bilkurari hasiera eman dio, eta gai-zerrendako puntu hauek aztertzeari ekin diote:

#### **Puntu bakarra:**

**“PASAI DONIBANEN JUBILATUEN ETXEAREN INGURUKO IRISGARRITASUNA  
ETA URBANIZAZIOA HOBETZEA” obraren kontratazio-espedientea onartzea.**

CHAVARRI Y ASOCIADOS, S.L. eta ENDARA INGENIEROS ASOCIADOS, S.L.-k proiektu bat idatzi dute **614.661,--** euroko aurrekontua duena eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak diruz lagundua (Birgaitze Integratuko Areetan edo Bizitegi Area Degradatuetan ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzea).



Espedientean jasota dauden Kontuhartzaitza eta Udaleko Idazkariaren txostenak kontuan hartuta, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez

## ERABAKI DU

LEHENENGO.- **“PASAI DONIBANEN JUBILATUEN ETXEAREN INGURUKO IRISGARRITASUNA ETA URBANIZAZIOA HOBETZEA”** proiektua, CHAVARRI Y ASOCIADOS, S.L. eta ENDARA INGENIEROS ASOCIADOS, S.L.-k erredaktatua ontzat ematea.

BIGARREN.- Obraren kontratazio espedientea ontzat ematea **614.661,-- euroko** aurrekontuarekin.

HIRUGARREN.- Kontratu hau esleitzeko prozedura **irekia** ezartzea eta prezioa hartzea irizpide bakartzat.

LAUGARREN.- Gastua **A-358/08 eta A-362/08** Baimenduen kargura onartzea.

BOSTGARREN.- Kontratu hau arautzeko Administrazio baldintza zehatzen agiria onartzea.

Eta aztertzeko beste gairik ezean, 9:12an amaitu da bilkura. Bertan eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, nik, behin-behineko idazkariak, akta hau egiten dut alkatearen oniritziarekin.